

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/116

Izenburua: SINDIKATUAREN PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1951-1978

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 66 instalazio unitate

Sortzailea: SINDIKATUAREN PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

1938ko martxoan Lanaren Forua argitaratu zen, eta, 1940ko urtarrilaren 26an, Batasun Sindikalaren Legea. Lege horien arabera, FETen eta JONSen erakunde sindikala besterik ez zen aitortzen, eta geroago sortutako beste edozein elkarte Mugimenduaren Erakunde Sindikalean sartuko zen. 1940ko abenduaren 6ko Erakunde Sindikalaren Oinarrien Legeak xedatzen zuenez, Sindikatuen Ordezkaritza Nazionalak hartuko zuen haren buruzagitza, eta sindikatu nazionalen bidez eta zentral nazional-sindikalisten bitartez beteko zituen bere eginkizunak lurraldeko arlo guztietan. Halaber, sindikatuen probintzia ordezkaritzak sortu ziren. Haien mende zeuden eremu ekonomikoko ordezkaritza sindikalak, eta sindikatu nazionalaren antzeko egitura zuten. FETeko sindikatuen probintzia ordezkaritza zuten buru; ordezkaritza sindikaletako buruzagiekin batera, probintziako kontseilu sindikala osatzen zuten. Kontseilu horren buru Mugimenduko probintzia burua zegoen, eta, kasua bazen, gobernadore zibila.

Sindikatuen Ordezkaritza Nazionalak, 1946ko martxoaren 9ko Aginduaren bidez, Kontseilu eta Idazkariordetza Nazional eta Probintzialak ezarri zituen antolamendu eta aholkularitza tresna gisa, eta ekintza organo gisa, berriz, obra sindikalak. Gainera, erakunde sindikal guztietan laguntza atal bat sortzea proposatu zuen; haren ardura izanen zen afiliatu guztiei iristea Lanaren Foruaren eta gizarte legediaren xedapenek ezarritako onurak, bai eta jarduera sindikal-asistentzialaren ondoriozkoak ere. Honako eginkizun hauek zituen: “enpresa taldeak” —langileen elkartek— antolatzea, kultur prestakuntza eta prestakuntza artistikoa egitea, aterpetxeak eta atsedeen egoitzak sortzea, ekoizpen zentroak egokitzea, bidaiak eta txangoak antolatzea eta “Ekoizlearen etxeak” instalatzeko plan nazional bat garatzea. Zehazki, 78 d) artikuluko asistentzia jardueratzat jotzen du “langileari kultur eta jolas laguntza ematea, bai lanean ari den bitartean, bai lanaldia bukatzen duenean”. Helburu horiek betetzeko, “Hezkuntza eta Atsedenerako Obra Sindikala” sortu zen. Sindikatuen Ordezkaritza Nazionaleko Gizarte Gaietako Idazkaritzaren mendekoa zen. Probintzien barruan, Laguntza eta Sustapen Idazkaritzaren mendekoa zen. Nafarroan probintzia idazkaritza bat zegoen, Sindikatuen Ordezkaritzaren barruan.

[http://www.archivosdeasturias.info/feaa/action/detalle?buttons\[1\]=loadDetailFondo&idTipo=1152](http://www.archivosdeasturias.info/feaa/action/detalle?buttons[1]=loadDetailFondo&idTipo=1152)

Nabarmentzekoa da, halaber, lege sindikal berri bat argitaratu zela, otsailaren 17ko 2/1971 Legea, eta 41. artikuluan Erakunde Sindikalaren lurralde organoak ezartzen zituela. Probintzia bakoitzaren burua Ordezkaritza bat zen. Hari zegokion bere lurralde eremuan ekintza sindikalak koordinatzea eta probintziako sindikatuentzat eta erakunde sindikalentzat zerbitzu komunak antolatzea eta ematea. 1972ko martxoaren 25eko Agindua —Sindikatuaren Zerbitzu Zentralen egiturari buruz Kongresu Sindikalak hartutako erabakia berresten duena— zenbait agindutan garatzen da. Haien artean, nabarmenduko dugu 1973ko urtarrilaren 27ko Agindua —Sindikatuen Laguntza eta Sustapenerako Idazkaritzaren mendeko zerbitzuen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa—. Obra Sindikalak, esan bezala, Laguntza eta Sustapenerako Idazkaritzaren menpe zeuden. Idazkaritza horren ardurak ziren Erakunde Sindikalaren gizarte edo laguntza zerbitzuak zuzentzea eta

kudeatzea, bai eta, besteak beste, sindikatuak eta beste erakunde sindikal batzuk koordinatzea, premien programak prestatzea eta obrak eraikitzea eta instalatzea.

Haien guztien artean, Nafarroako Artxibo Garaikidean Obra Sindikal hauen dokumentazioa gorde da: Hezkuntza eta Atsedena, Artisautza eta Etxeko Obra Sindikala (oharra: etxebizitzaren sustapenari buruzko dokumentazioa Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuaren —IPPV— mendekotzat sailkatu da).

Agindu horren arabera, Hezkuntza eta Atsedena Obra Sindikalaren xedea da aisialdiaren aprobetxamendu egokia sustatzea eta bultzatzea, eta gai horietaz arduratzen ziren erakunde sindikalen erakunde integratzailea eratzea. Era berean, sindikatuak, erakunde profesionalek edo antzeko erakundeek antolatutako aisialdiko jarduerak laguntzeaz eta sustatzeaz arduratuko zen.

Obrak honako departamentu hauek zituen:

Kirolak: jarduera fisikoa eta kirola sustatzeaz arduratzen zen, dirulaguntzak emanez, lehiaketak antolatuz, etab.

Kultur hedapena: jarduera artistikoak sustatzea zen haren eginkizun nagusia, horretarako musika eta dantza taldeak, arte akademiak, antzerki taldeak, zinema erakustaldiak eta abar antolatuz.

Turismo soziala: bidaia kolektiboak antolatzea eta horretarako emandako laguntzak kudeatzea zegokion.

Sustapena eta orientazioa: talde sindikalen jarduerak koordinatzen zituen, bai eta Obrarekiko harremanak ere, eta laguntzak eta dirulaguntzak ematen zituen.

Programazioa eta instalazioak: haren ardura zen plangintza eta beharren programazioa egitea, inbertsioak egitea, zentroak sortzea, aurrekontuak egitea, etab.

Obra sindikalaren mende, egoitzen eta egoitza-hirien, kanpinen eta opor guneen sare bat zegoen, erakunde autonomo gisa funtzionatzen zuena.

1976ko urriaren 8ko Errege Lege Dekretuaren bidez (urriaren 26ko BOE), erakunde sindikala Zerbitzu Sozioprofesionalen Administrazio Institutuzional (AISS) izeneko bihurtu zen; erakunde autonomoa zen, Gobernuaren presidentziari lotua. Desagertutako erakunde sindikala organikoki integratutako sindikatuen eta erakunde sindikalen ordena osoak osatzen zuen. Izaera instituzionala zuen eta ordezkaritza izaera; nortasun juridikoa zuen eta bere helburuak betetzeko jardueretan aitzeko gaitasun osoa:

<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=965398>.

Ekainaren 2ko 31/1977 Lege Dekretuaren bidez, erakunde autonomo gisa eratu zen. Hala ere, Dekretuan bertan, azkentzea aurreikusten zen langileak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioari eskualdatzearekin batera. Hori gertatu zen ekainaren 17ko 2508/1977 Dekretuarekin, haren eginkizunak Lan Ministerioari esleitu baitzizkion. Hala ere, apirilaren 14ko 906/1978 Errege Dekretua izan zen Erakunde Sindikalaren unitateak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioari eskualdatu zizkiona, eta, horren ondorioz, hainbat ministerioren artean banatu ziren.

Ia ez dago Ordezkaritza Probintzialaren dokumentaziorik, eta Nafarroako Artxibo Garaikidean gordetzen dena Hezkuntza eta Atsedena Obra Sindikalarena da. Dokumentazio hori 1960ko hamarkadaren bukaeratik 1977ra bitartekoa da, eta lehen deskribatutako kirol, arte, kultura eta turismo sozialeko jarduerak sustatzeko eginkizunen erakusgarri da. Obraren administrazioari buruzko espediente batzuk ere azpimarratzen ahal ditugu, hala nola afiliaziokoak, jarduera memoriak eta Erakunde Sindikalaren Probintzia Ordezkaritzarekiko korrespondentzia.

1968ko jarduera memoriari esker, obra horrek Nafarroan zituen instalazioak ezagutzen dira:

Piscina izeneko kirol multzoa, 1954an inauguratua eta 2 pilotaleku, saskibaloia pista, igerilekua eta beste zerbitzu-erakin batzuk zituena.

Esako Klub Nautikoa, 1961eko maiatzaren hasieran inauguratua Ebroko Konfederazio Hidrografikoak utzitako lurretan. Zerbitzu-erakinak eta ontzientzako instalazioak ditu.

Tuterako Kirol Taldea, 1954an inauguratua, Udalak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak utzitako lurretan. 1968an, proiektatutako hiru faseetatik bi eginak zeuden. Igerilekua, saskibaloia, eskubaloia eta patin pistak, jatetxe zerbitzuko eraikinak, dutexak eta abar zituen.

Azkoiengo futbol zelaia, Azcoyen Kirol Elkartek erabiltzen zuena.

Iruñeko Ekoizlearen Etxea, Kale Nagusiko 2. zenbakian dagoen higiezia. Taberna-areto bat zuen, eszenatokiz hornitua, bulegoa eta liburutegi bat, hainbat libururekin —gehienak “ondasun marxistak” desjabetzetik etorriak— eta gimnasio bat.

Txantrea auzoko Ekoizlearen Etxea, pisu batean kokatua —Francisco Franco Patronatuak lagatakoa—. Jantokia, sukaldea eta zerbitzuak zituen, baita biltegi bat ere.

Hezkuntza eta Atsedena Obra Sindikaletik zetorren dokumentazioa eta legeria aztertu ondotik, Nafarroako Erakunde Sindikalaren mendekotzat sailkatu da.

ARTISAUTZAKO OBRA SINDIKALA

1938ko martxoan, Lanaren Forua argitaratu zen. Bertan, artisautza babestu eta sustatuko zela ezartzen zen. Xedapen hori betez, artisautzaren Obra Nazionala antolatzeke batzorde bat eratu zen, Antolakuntza eta Ekintza Sindikaleko Ministerioaren zuzendaritzapean. 1939ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez sortutako batzorde horren helburua zen Obra Sindikalaren behin betiko eraketa prestatzea. 1939ko abenduaren 31ko Aginduaren bidez, FETko eta JONSeko Sindikatuen Ordezkaritza Nazionalaren esku utzi zen Artisautzaren Erakusketa eta Salmenta Zerbitzua. Mugimenduko Emakumeen Ataleko Ordezkaritza Nazionalarekin lankidetzan beteko zuen horren gaineko zeregina.

Hasiera batean, Lan Ministerioa izan zen tutoretza gauzatu zuena eta bertan benetako ordezkaritza izan zuena. Sektore horren zerbitzurako laguntza eta ordezkaritza tresna bihurtu zen Artisautzako Obra Sindikala. Artisautza antolatzeari buruzko otsailaren 22ko 335/1968 Dekretura arte itxaron behar izan zen jarduera antolatu, babestu eta sustatuko zuen benetako lege esparrua izan zezan. Horrela, Artisautzako Lanbideen Zerrenda sortu zen. Bertan zerrendatuko ziren Artisauen Gutuna jasotzeko eta 1966ko maiatzaren 12ko Dekretuak ezarritako Erregistroan inskribatzeko moduan zeuden jarduerak (Dekretu horrek Artisautza Atala sortu zuen Industria Ministerioko Ehungintza eta Beste Industrien Zuzendaritza Nagusian. Atal horri esleitzen zitzaizkion garai bateko Beste Industrien Atalak sektore horretako alderdi industrialen gainean zituen eginkizunak; gainera, arduratzen zen Artisautzako Obra Sindikalak idatzi eta erregistratutako Artisauen Kartarekin bat zetorren Erregistro nominal bat antolatzeaz, bai eta artisau jardueren izendegi bat antolatzeaz ere, obra sindikal horren arabera aldizka eguneratzen joanen zena).

Obra sindikal horri buruz artxiboan gordetzen den dokumentazio urria Artisauen Zentsuari buruzkoa da, 1969 eta 1981 bitartekoa. Txosten bat ere badago, 1948ko probintziako artisautza lehiaketari buruzko argazkiak biltzen dituen.

Abuztuaren 1eko 1774/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroari eskualdatu zitzaizkion Estatuaren Administrazio Orokorrak industriaren eta artisautzaren arloan zituen eginkizunak, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Departamentuari esleitu zitzaizkion (189/1985 Foru Dekretua).

Funtsaren antolamendua:

116.01 PROBINTZIA ORDEZKARITZA

116.01. 01 EKINTZA SINDIKALEN KOORDINAZIOA

116.01.01.01 Jarduera sindikalen memoriak

116.02 HEZKUNTZA ETA ATSEDENA OBRA SINDIKALA

116.02.01 ZUZENDARITZA

116.02.01.01 Aurrekontuak

116.02.02 ADMINISTRAZIOA

116.02.02.01 Afiliazioa

116.02.02.02 Jardueren memoriak

116.02.02.03 Korrespondentzia

116.02.02.04 Estatistikak

116.02.03 KIROLEN SUSTAPENA

116.02.03.01 Kirol lehiaketak eta jarduerak

116.02.04 KULTUR JARDUEREN SUSTAPENA

116.02.04.01 KULTUR ETA ARTE JARDUERAK

116.02.05 TURISMO SOZIALAREN SUSTAPENA

116.02.05.01 Bidaia eta oporrak

116.02.06 INSTALAZIOEN ETA EGOITZEN KUDEAKETA

116.02.06.01 Instalazioen programazioa eta plangintza

116.02.06.02 Instalazioen eraikuntza eta mantentze lanak

116.02.06.03 Obra sindikalaren zentroen eta instalazioen kudeaketa

116.02.07 ORIENTAZIOA ETA SUSTAPENA

116.02.07.01 Talde sindikalen jardueren koordinazioa

116.03 ARTISAUTZAKO OBRA SINDIKALA

116.03.01 ARTISAU JARDUERAREN ANTOLAKETA

116.03.01.01 Artisauen errolda

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.